

Doinuak eta tonuak

Kazetari bat kalean ibili da jendeari galdezka zer doinu daukaten telefono mugikorrean.

Audioa entzun eta erantzun galderari.

Ulermen galderak

1. Guztira, zenbat tonu eta zenbat doinu aipatzen dituzte elkarrizketatu dituzten pertsonak?
 - Bi abesti eta bi tonu.
 - Hiru abesti eta tonu bat.
 - Hiru abesti eta bi tonu.
2. Elkarrizketatu dituzten pertsonak arrazoiak eman dituzte doinua zergatik aukeratu duten azaltzeko.

Lotu doinuak arrazoiarekin. Horretarako, **lotu gezien bidez doinuak eta arrazoiak.**

<u>Doinuak</u>	<u>Arrazoiak</u>
○ Rocky	Mugikorra zaharra delako
○	
○ Agressive Combat	Abesti onak direlako, gustatzen zaizkiolako
○	
○ Txirrin bat	Musikarekin, azkenean, aspertu egiten garelako
○ Samsung-en doinua	Gustuko duelako taldea

Transkripzioa

ESATARIA 1. Ba kalean ibili gara nahi dugulako jakin jendeak bere mobilari zer soinu jartzen dion.

ESATARIA 2. A bai, hori oso esanguratsua izaten da, ez? Batzuek Pirritx eta Porrotxen “maite zaitut” dute, beste batzuek halako tonu oinarri-oinarrizko bat. Eta zu horien bila ibili zara orduan.

E1. Horien bila ibili gara. Eta bakoitzak berea dauka, eta bakoitzaren tonuak antza, esaten du, bakoitzarengandik zeozer, asko ez dakigu, baina zeozer behintzat bai.

E2. Ea entzun dezagun Xabik ze bildu duen.

E1. Ze tonu daukazu zuk?

MUTILA 1. Rocky pelikularen abestia edo. (musika)

M1. Gustuko dudalako pelikula, eta abestia onak direlako, eta gustukoak ditudalako.

E1. Zenbat bider ikusi duzu Rocky?

M1. Ba askotan.

E2. Baina denak, zazpiak edo...

M1. Seiak bai.

MUTILA 2. Nik tonu klasiko bat. Telefonoko tonu klasiko bat. Txirrin bat. Ez dakit. Musikarekin azkenean aspertu egiten delako pertsona, eta ez dakit, hasieratik ipini neban (nuen) eta beti daukat tonu bera. Bai. (Tonua)

MUTILA 3. Agressive Combat. Gustuko dudalako.

E1. Nongo taldea da?

M3. Arrasatekoa uste dut.

E1. Agressive Combat, Arrasatekoak dira, zure mobileko tonua.

M3. Bai.

E1. Jarri ahal didazu kantua, tonuan daukazuna? (musika)

MUTILA 3. Ez dakit ze tonu daukadan. Eske tresna hau oso zaharra da.

E1. Zenbat urte dauzka zure mobilak?

MUTILA 4. 10 urte dauzka. Oso ona da, da Samsung.

E1. A, Samsung.

M4. Samsung.

Erantzunak

1. Bi abesti eta bi tonu.

2. **Rocky**

Abesti onak direlako, gustatzen zaizkiolako.

Agressive Combat

Gustuko duelako taldea

Txirrin bat

Musikarekin, azkenean, aspertu egiten
garelako

Samsung-en doinua

Mugikorra zaharra delako